




Garaioko informazio puntua:

695 782 498

Aguraingo turismo bulegoa:

945 312 535

Murgiako turismo bulegoa:

945 430 440

Informazioa eta trackak eskuratzeko: www.alava.net



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Zuaiako Koadrila
Cuadrilla de Zuia



CUADRILLA DE SALVATIERRA
AGURAINKO ESKUALDEA



IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA: Urtegiko adarretako hezeguneari bira

Ibilbideak Ramsar hitzarmenak babestutako hezeguneeen artean dagoen Uribarri-Ganboa urtegiaren adarretara eta urtero bere eremuan hegazti migratzaile asko hartzen dituen Mendixur Ornitologia Parkera hurbilduko gaitu.

Km 0. Garaioako Eskualde Parkean dagoen informazio etxearen ondotik abiatuko gara. Hau ezkerretara utziz errepidean aurrera egingo dugu, harik eta lehenengo bidegurutzean urtegiaren gainetik doan pasabidearen desbiderapena hartu arte. Mendebalderantz goaz orain. Ezkerrean Mendixur Ornitologia Parkea ikusi dezakegu, urtegiaren hegoaldeko adarretako batean kokatuta. Zonalde hau Ramsar Hitzarmenak babestutako hezeguneeen zerrendan azaltzen da, migrazioan hainbat ur-hegaztientzako atseden hartzeko eta elikatzeko leku garrantzitsua baita.

km 3,9.- Pistan aurrera jarraituko dugu harik eta dikera heldu arte. Bertan azaltzen zaigu Orenin irlako ikuspegiarik onena. Gaur egun zikoinek eta lertxunek kolonizatutako



biodibertsitatearen gordeleku paregabea den irlatxo hau, duela hamarkada batzuk urtegiaren sorrerarekin desagertu ziren herrietako bat izan zen. Atzealdean, aisialdirako leku paregabeak diren Garaioako Eskualde Parkeko hondartzak ikusi ditzakegu. Urtegiko dikea zeharkatu ostean GR 38tik – Ardoaren eta arrainaren bidetik- gertu joango gara. Baina Azuako herrigunera hurbildu heinean bi bideak parean joango dira. Herri honetako elizako aurriek adierazten digute jada gutxi falta dela zirkuitua ixteko.

km 9,1.- Azuako pasabidea zeharkatu eta eskumako pista hartuko dugu, urtegiaren ertzetik aurrera jarraituz. Pixka bat aurrerago ur gaineko beste pasabide bat zeharkatuko eta berehala ezkerreko joko dugu, pistan gora, harik eta Muskurio mendixkaren magalean kokaturiko begiratokira heldu arte. Ikuspegiak gozatu ostean pistatik jarraituko dugu, beti aurrera, errepidera heldu arte. Behin errepidean, ezkerreko jotzen badugu Garaioa helduko gara, ibilbidearen amaiera puntura.



MIDE


				Gogortasuna 1 Severidad	Orientazioa 2 Orientación	Desplazamendua 2 Desplazamiento	Esfortzua 2 Esfuerzo
--	--	--	--	-------------------------------	---------------------------------	---------------------------------------	----------------------------

MIDE ibilbideen gogortasun teknika zein fisikoa baloratzeko erabiltzen den txangolarien arteko komunikazio sistema da.

MIDEn zailtasun desberdineko lau aspektu baloratzen dira (1etik 5erako puntuazioarekin, txikitik handira):

- Ingurune naturalaren gogortasuna
- Ibilbidean orientatzeko zailtasuna
- Desplazamenduaren zailtasuna
- Behar den ahalegin maila

PROFILA





IBILTARIAREN DEKALOGOA

- 1.- Ibilbidearen plangintza egin aldez aurretik
- 2.- Ahal izanez gero, lagunekin joan
- 3.- Ibilbidearen berri eman ingurukoei
- 4.- Arropa egokia eraman
- 5.- Edari eta janari nahikoa eraman

- 6.- Ez ahaztu eguzkitako crema
- 7.- Landareak eta animaliak errespetatu
- 8.- Ez irten markatutako ibilbideetatik
- 9.- Ingurunea zaindu
- 112 10.- Larialdi-egoeran 112 telefonora deitu